


Literatura | POESIA

Piztutako etxea
Felipe Juaristi.
Erein, 2014



Inoiz ez efimeroa

FINEZIA BAT badauka Felipe Juaristik bakana euskal poesian (Leterena, Anselmirena, Arregi Diaz de Herediarena?) klasiko moderno bat irakurtzen ari zarela sentiarazten dizuna. Benetako poesia dastatzeko aukera dauka berriro irakurleak, daukan forma hau hartu aurretik saiakera tankera hartua zuen liburu honekin. Heraklitorekin hasten da, hasi ere, azkoitiarra: “Ezustekoa dena ez baduzu espero, ez duzu sekula aurkituko”.

Pasioa, maitasuna, ona eta gaitza... bizi-pozaren eta bizi-minaren artean ei dabilen poetaren *Piztutako etxea* iluminazio bat da hizkuntzarena.

Madrileko La Casa Encendida-n idatzi du poemarioa, horra titulurako arrazoi agerikoa. Baina Felipe Juaristiren ezkutuko eta alegiazko etxe piztua bestelakoa da. Haren leihoetatik dator argi bat, su bat platonikoa, poesia absolutua eta pitzadurarik gabea. Potentzia kanoniko guztiarekin hitz egiten digu denboraz, esate baterako: “Hemen hotza dago,/ eta eskuak zimurtzen dira,/ begiak lausotu/ eta pisudun bilakatzen./ Oroit zaitez diote,/ minik ekarriko ez balu bezala/ mundu horretara itzultzeak”.

Zehaztasunak eta lexikoaren hautaketak zerikusia daukate. Sakontasuna pedantekeriarik gabe eskaintzen da, arintasuna arinkeriarik gabe. Haus-

narketaren tonu pausatua eta presarik gabeko bitalismo bat dira liburua hain atsegin bihurtzen dutenak, hain arnasa luzeko. Abstraktutik sentsazio konkretuetara salto zelan egiten duen ikusgarria da, izkina egiteraino astuntasun berezkoari: “Ez gara denbora,/ ez baikara betirakoak./ Denbora bada,/ gugandik kanpo,/ bero dagoen tokiren batean”.

Juaristi irakurriz ikasten du batek zelan esan zerbait ahalik eta ederren, ahalik eta osoen. Bizitzak malenkonia sorrarazten dio, eta era berean maite du aurrera egite hori, hilen pisua biziek erote obligaziozko hori. Gizaki sentiberaren tolesdurak eta inpotentziak eta ezinak deskribatzen dira beraz *Piztutako Etxean*, baina modu guztiz patxadatsuan. Libre eta era berean esklabo dela badakienaren kontzientziarekin idazten du Juaristik, juzgatu barik, espantu barik: “Sufritzen eta gozatzenean,/ odoletan galtzen gara/ eta zauriak erakusten”. Eta gogoia ematen du elkartzeko kritika honetara beste ahapaldi batzuk, konbentziturik ez dagoen irakurleak ikus dezan nola egin daitekeen abangoardia betiko materialekin, garra artifiziorik gabe. ■

Igor Estankona



www.bertsozale.eus/xilaba



Muskildi

Posonpesenean
Urriaren 4an, 17:00etan



Aitor Servier



Egoitz Zelaia



Gillen Hiribarren



Mixel Etxekopar



Sustrai Colina



Xan Alkhat